

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN PRESENTZIA ESKOLAN GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Merino Maya, Raquel

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier

**2020/2021**

## **Laburpena**

Lan honen bidez Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) presentzia Bilbo handia osatzen duten udalerrietako eskoletan nolakoa den ikertu nahi da, zehazki Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan. Horretarako, ikerketa kuantitatiboa erabili da, inkesta itxia hain zuzen ere. Inkesta eskola desberdinetara bidali da bertoko irakasleak erantzuteko, horrela Haur eta Gazte Literaturak gaur egun hezkuntzan zein nolako papera daukan ezagutzeko eta aldaketak egon diren aztertzeko.

Ikerketa honetan argi geratu da irakasleen aldetik Haur Literaturak duen garrantzia, baina baita ere beren irakasle ikasketetan jaso zuten formakuntza txikia.

*Haur eta Gazte Literatura, heziketa sistema, Haur eta Lehen Hezkuntza.*

## **Resumen**

Mediante este trabajo se quiere investigar la presencia de la Literatura Infantil y Juvenil (LIJ) en las escuelas ubicadas en los municipios que conforman la zona Gran Bilbao, concretamente en las etapas de Educación Infantil y Primaria. Para ello se ha realizado una investigación cuantitativa, en concreto una encuesta de tipo cerrado. La encuesta ha sido enviada a diferentes escuelas para ser respondida por los docentes y de ese modo conocer el papel que tiene hoy en día la Literatura Infantil y Juvenil en la educación y analizar si ha habido cambios.

Con esta investigación ha quedado claro la importancia de la Literatura Infantil en los docentes, pero también la poca formación que recibieron en sus estudios sobre el tema.

*Literatura Infantil y Juvenil, sistema educativo, Educación Infantil y Primaria.*

## **Abstract**

This work wants to investigate the presence of Children's and Youth Literature in schools located in municipalities that make up Gran Bilbao area, in particular in Child and Primary Education. Quantitative research has been carried out for this purpose, specifically a closed-type survey. The survey has been sent to different schools to be answered by teachers and that way meet the role of Children's and Youth Literature in education and analyse if there have been any changes.

With this research has made clear the importance of Children's Literature in teachers, but also the few formation that they received in their studies on the subject.

*Children's and Youth Literature, education system, Child and Primary Education.*

## AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	1
2. MARKO TEORIKOA .....	2
2.1. Zer da Haur eta Gazte Literatura?.....	2
2.2. Haur eta Gazte Literaturaren ibilbidea Hezkuntzan.....	3
2.3. Haur eta Gazte Literaturaren presentzia eskolan .....	5
2.4. Haur eta Gazte Literatura sustatzeko proiektuak .....	6
2.5. Aurretiko estudioak eta ikerketak.....	7
3. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK.....	10
4. METODOLOGIA .....	11
4.1. Materiala .....	11
4.2. Testuingurua eta parte-hartzaileak.....	12
4.3. Datuak nola landu: egindako prozesua .....	12
5. ESKURATUTAKO DATUAK.....	13
6. ONDORIOAK .....	25
7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	30
8. BIBLIOGRAFIA .....	31
9. ERANSKINAK .....	36
- Eranskin 1 .....	36

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) presentzia eskolan era batera edo bestera beti egon da. Kasu honetan, zein nolako garrantzia duen hezkuntzan jakiteko gogoia dago, aurrerapen handia egon den ala ez ikusteko. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honen bidez Haur eta Gazte Literaturaren papera eskoletan zein den ezagutu nahi da, bertan jarduten duten irakasleei inkesta bat eginez. Horretarako, lana hainbat ataletan bananduta dago.

Irakurleak ikusiko duen hurrengo atala marko teorikoa da, non Haur eta Gazte Literaturari buruzko informazioa agertuko den, irakurleak testuinguruan kokatzeko eta oinarritzko ezagutzak jakiteko. Informazioa era ordenatu batean mantentzeko eta hobeto ulertzeko, bost azpiataletan bananduta egongo da. Marko teorikoa eta gero, lanaren hipotesiak eta helburuak zeintzuk diren aurkituko dira.

Lanaren bidez zer lortu nahi den jakinda, metodologia izeneko atala agertuko da eta hor hipotesiak eta helburuak lortzeko zein materiala erabili den, zein testuingurutan burutu den, nortzuek parte hartu duten eta egindako prozesua nola izan den ikusiko da. Ondoren, datuen interpretazioa agertuko da. Bertan, irakasleen emaitzak kontuan hartuta galdera bakoitzeko zein nolako ondorioak atera diren irakurriko du bai eta ondorio orokorrak ere, aurretik aipatutako hipotesiak baieztatu edo ezeztatu diren adieraziz. Gainera, ondorioak autore desberdinen ideiekin osatu dira.

Azkenik, lan hau egiteak ekarri dituen zailtasunak eta hobekuntza proposamenak, lanean zehar erabili diren erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak agertuko dira, lana hobeto ulertzeko informazio gehigarria txertatuz.

Lan honen egitearen zergatia ulertzeko, nire esperientzia literaturarekin ipintzea beharrezkoa da. Nire bizitzan literaturaren presentzia handia da eta horretan familiak eragin handia izan du, haiek literaturak ondo pasatzeko zein gauzak ikasteko balio duela erakutsi zidatelako, baina zoritxarrez eskolan hori ez zen hainbeste gertatu.

Ikasle bezala egon nintzenean, eskolak irakurzaletasuna sustatzeko jarduera batzuk antolatzen zituen arren (ipuin kontalariak, antzerkiak...), ohikoena zen irakasleek maila berean geunden ikasleei liburu berdina etxean irakurri behar genuela esatea, egun batzuk geroago horri buruzko laburpena edo azterketa bat egiteko, hau da, literatura gainditzeko zerbait zela erakutsi ziguten, literaturaz gozatzeko aukera eman beharrean.

Magisterio ikasten hasi nintzenean eta hainbat praktika bai Lehen Hezkuntzako bai Haur Hezkuntzako etapetan egin ostean, egoera hori oraindik gertatzen zela konturatu

nintzen. Hala ere, literaturaren papera aldatzen ari da, eskola batzuetan irakasgai bezala tratatzen ez delako, entretenitzeko bide bat bezala baizik.

Bizi izandako esperientzia kontuan izanda, Haur eta Gazte Literaturari buruzko oinarritzko formakuntza izatea beharrezkoa zela konturatu nintzen eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateak eskaintzen duen *Irakurzaletasunaren sustapena eta bibliotekak* izeneko minorrean sartzea erabaki nuen. Horri esker literaturaren garrantzia eta haren onurak zeintzuk diren jakiteko aukera izan dut, bai eta irakurzaletasuna sustatzeko zein jarduerak egin ahal diren ikusi, literatura testu desberdinak ezagutu eta haurrentzako liburu bat aproposa den ala ez aztertzen ikasi ere.

Beraz, Gradu Amaierako Lan hau egitea erabaki dut, batetik literatura oso garrantzitsua dela eta horregatik irakaskuntzan sartuta egon behar duela uste dudalako, entretenitzeko papera foku nagusia izanez eta bestetik, Haur eta Gazte Literaturaren presentzia eskolan nolakoa den aztertu nahi nuelako (irakasleen prestakuntza, erabilera, irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak...).

## **2. MARKO TEORIKOA**

### **2.1. Zer da Haur eta Gazte Literatura?**

Literatura errealitatea irudikatzeko modu bat da, non gertakariak edo gertakari errealak beste gertakariekin edo fantasiarekin nahasten diren (Orozco et al., 2010). Haur eta Gazte Literatura, azken finean, literatura da eta "haur" edo "gazte" gehitzen zaio irakurleek garai horretan dituzten gaitasunak kontuan hartzen direlako, hau da, oraindik garatzen ari diren irakurleengana zuzentzen saiatzen den literatura da. Hala ere, ez du mezuen unibertsaltasunari ezta hizkuntzaren edertasunari uko egiten, literaturaren kalitatean eraginik ez izateko. Gainera, HGL ez da soilik espezifikoki haurrentzat idazten dena, haurra hartzaile nagusi edo bakar bezala eduki gabe, haiek denboraren poderioz berea egin duten literatura ere da (Cerrillo, 2007). Horregatik, Etxanizen (1997) iritziz: "Haur eta gazte literatura, beraz, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, beraiei irakurtzean atsegina sentiarazten diren testu multzoa litzateke".

Cerverak (1989) errealitatea kontuan hartuz, HGL prozesua hiru era desberdinetan garatu dela eta hiru Haur Literatura mota daudela azaltzen du, honako hauek direnak: irabazitako literatura, haurrentzat idatzitako literatura eta instrumentalizatutako literatura. Irabazitako literaturan, haurrentzako ez ziren ekoizpenak sartzen dira, baina denbora

pasa ahala hurrek bereganatu dituztenak. Horren adibidea ipuin tradizionalak dira, hauek haienezako adaptatu diren obrak direlako. Bigarren motak, haurrentzat idatzitako literaturak, zuzenean haurrak ditu hartzaile moduan, hau da, espezifikoki haienezako idazten da eta beraien beharrak eta izaerak kontuan hartzen dira obrak sortzeko, adibidez, *Pinotxoren abenturak*. Azkenik, instrumentalizatutako literatura dago. Honetan, asmo didaktikoa da nagusitzen dena literatura baino, beraz, sormena minimoa da eta soilik zerbait ikasteko bideratuta dauden obrak dira, hala nola *Teo*.

Arestian aipatu den bezala, HGL literatura da, beraz, dituen ezaugarriak ez dira literatura osotik kanpo geratzen. Honek esan nahi du antolamendu egiturak eta prozedura estilistiko antzekoak aurkitu ahal ditugula eta garai horretan dauden korrante sozialak eta kulturalak literatura guztietan islatzen direla. Halaber, berak dituen ezaugarriak herri-tradiziozko literaturak dituen ezaugarriekin bat egiten du, adibidez, edukiak, estrukturak, formak edo erabilitako prozedurak (Cerrillo, 2007).

Hau guztia ikusita, HGL bere autonomia artistikoa duen literatura da eta horren bidez gaur egun erabateko adierazpen literarioa bezala aintzakotzat hartzea lortu du (Cerrillo, 2007).

## **2.2. Haur eta Gazte Literaturaren ibilbidea Hezkuntzan**

Haur eta Gazte Literaturaren presentzia eta garrantzia asko aldatu da, Colomerrek (2010) eta Sanchezek (2018) adierazi bezala.

Ez da HGLren kontzeptuari buruz hitz egiten XVIII. mendera arte, garai horretan mendebaldeko kultura burgesia klase sozial bezala nagusitu zelako eta horregatik, haurtzaro eta heldutasun aldiak desberdinu ziren, haurrak haurtzaroko pieza nagusi bihurtuz eta beraien beharrak kontuan hartuz. Hala ere, ez dira haurrentzat bideratutako irakurketa corpusak egiten XIX. mendera arte, eskolatze prozesua hasi zenean eta hauek irakaskuntzarako baliabide bezala erabiltzen ziren.

XX. mendean, Europan garapen eta hedapen handia egon zen Haur eta Gazte Literaturan bai gaiei bai pertsonaiei buruz, baina Espainian egoera desberdina zen. XX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan Madrilen eta Bartzelonan argitalpen sarea asko hazi zen, adibidez, Saturnino Calleja argitaratzaileak haur ipuinak argitaratzen zituen eta horren bidez Grimm anaien edo Perraulten ipuinak irakurtzeko aukera zegoen. Gainera, haurrentzako aldizkariak sortu ziren ez soilik gaztelaniaz, penintsulako beste hizkuntzetan ere, hala nola euskaraz eta katalanez. Frankismoaren garaian, ordea, dena aldatu zen eta atzerapen handia egon zen: idazle eta ilustratzaile asko erbesteratu ziren,

gaztelaniaz soilik idatzi ahal zen eta gaiek erlijiosoak, historikoak edo folklorikoak izan behar zuten, Espainia uniforme, katolikoa eta kontserbadore irudia emanaz.

60ko hamarkadan egon zen irekitasun politikoagatik, HGLren papera berriro aldatu zen. Beste hizkuntzetan argitaratzeko debekua bukatzean, Bartzelonan La Galera izeneko argitaletxea sortu zen eta Haur Literaturara dedikatzen zen. Demokrazia etorri zenean, HGLk garrantzia handia hartu zuen eta autoreek, argitaratzaileek eta beste eragile batzuek herrialdea gai horri buruz zeukan atzerapen kulturala gainditzea nahi zuten. Horretarako, haurrentzako liburu asko idazten hasten dira eta gai desberdinei buruz idazten da, tabuak hautsiz eta fantasiako eta misteriozko generoak sortuz.

XX. mendeko azken hamarkadan, HGL hezkuntza testuinguruan sartzen da eta irakurketa ezinbesteko jarduera da haurraren irakaskuntza prozesuan. Kasu honetan, ez da derrigorrezko ekintza, baizik eta ekintza ludikoa, aspektu sortzaileak eta irakurtzeko ulermena garatzen laguntzen duena. Hori guztiagatik HGLren papera eta beraren garrantzia XVIII. mendetik gaur egunera arte aldatu dela ikusten dugu.

Haur eta Gazte Literatura beharrezkoa da irakurle literarioak prestatzeko, beraz, funtsezko papera dauka haurtzaroan eta nerabezaroan, literaturarekin lehenengo harremana izaten den garaia delako eta bai mundua ezagutzeko bai sormena, nortasuna eta pentsamendu kritikoa garatzeko balio duelako (Cerrillo, 2016). Izan ere, Tapiak (2016) esaten duen bezala ipuinak umeei kontatzen bazaizkie heldu aktibo bihurtzeko eragina izango luke, ikaskuntzan arduratsua izanez eta bere premiaren arabera bizi den testuingurua ulertzen eta elkarreragiten dakiena.

Moronek (2010) HGLk hainbat onura eskaintzen duela adierazten du, hala nola sormena eta irudimena suspertzea, ohiturak, tradizioak eta baloreak transmititzea gizartean integratzen laguntzeko, kultura desberdinak ezagutzea, hiztegia handitzea, pertsonaien bidez norbanakoaren emozioak ezagutzea, aztertzea eta garatzea, gai eta kontzeptu desberdinak aurkeztea pentsamendu kritikoa eta hausnartzeko gaitasuna eratzeko eta abar. Alegia, entretenitzeaz gain, adimenaren garapena, garapen afektiboa, gizarte trebetasunak eta pentsamendu logikoa lantzen dira. Arestian aipatutako guztia lortzeko, familiek eta eskolak prozesu honetan paper garrantzitsua bitartekari moduan dutela esaten du eta, horregatik, gomendatutako literatura zein den ezagutu behar dute umea gizaki osoa, zoriontsua eta emozioz bete izateko (Tapia, 2016).

### 2.3. Haur eta Gazte Literaturaren presentzia eskolan

Gaur egun, eskola Haur eta Gazte Literatura bultzatzeko entitate eraginkorra da, batetik, haurrentzat irakurtzeko ohiturak sortzen saiatzen delako eta bestetik, idazle, argitaletxe eta irakasle desberdinen ekarpenak daudelako (Cervera, 1989).

Euskal Herriko curriculumean literaturaren presentzia dago. Izan ere, hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentziaren barruan literatura lantzen da, bai Haur Hezkuntzan bai Lehen Hezkuntzan, helburu eta eduki desberdinak izan arren.

Haur Hezkuntzan zentratuz, urtarrilaren 15eko 237/2015 dekretuak kompetentzia horretan zer landu nahi den literaturari buruz hau esaten du: "literaturaren adierazpen xumeenak gerturatuko dizkie literatura-hezkuntzak haurrei, bizipen gozagarriak izan ditzaten, literatura-testuak entzun eta moldatuta" (237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, 25. or.).

Lehen Hezkuntzan, berriz, 15eko 236/2015 dekretuak honako hau esaten du kompetentziari buruz eta konkretuki literaturari buruz:

Hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Era berean, literatura hezkuntza lantzea dakar kompetentzia honek, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzeko.

#### Osagaiak

Honako osagai hauek ditu hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentziak: [...]

4. Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatze modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibilitate estetikoa garatzea (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, 59. or.).

Horretaz gain, curriculumean zein nolako edukiak landuko diren literaturarekin erlasionaturik daudenak agertzen da. Haur Hezkuntzan ez dago multzo bat espezifikoki literaturara bideratuta dagoena, baina nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena eremuan multzo bat dago, hitzezko komunikazioa deitzen dena, non literaturari buruzko hainbat eduki agertzen diren, esaterako, testu desberdinak (ipuinak, olerkiak, abestiak, errimak eta bestelakoak) aditasunez entzutea eta horiek eskatzea, literatura-testu errazak, tradizionalak eta garaikoak entzutea, ulertzea eta errezitatzea



plazera sentitzeko eta gai desberdinei buruzko gauzak ikasteko eta literatura-testuak dramatizatzen hastea eta parte hartzea (237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa).

Lehen Hezkuntzan desberdina da. Konpetentzia horren barruan multzo desberdinak daude, baina konkretuki bat dago, 4. multzoa, literatura-hezkuntza deitzen dena, non literaturarekin zerikusia duten edukiak agertzen diren. Horiek LHko etapan garatu nahi diren kontzeptuak dira, etorkizunean haurrek literaturarekin harreman estuagoa lortzeko, hala nola literatura klasikoko eta Haur Literaturako lanak irakurtzea eta norberaren esperientziak besteekin kontrastatzea, testu desberdinak (ipuinak, poemak, kontakizunak...) denen artean irakurtzea eta entzutea, literatura-generoak ezagutzea eta abar (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea).

Hortaz, literatura hezkuntzan era batera edo bestera presentzia duela ikusi ahal dugu, curriculumean kontuan hartzen delako.

#### **2.4. Haur eta Gazte Literatura sustatzeko proiektuak**

Euskal Autonomi Erkidegoan zentratuz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak (2018) irakurketa plan bat burutu zuen, non informazioa, aholkuak eta proiektu edo jardura desberdinak agertzen diren bai irakurmena hobetzeko bai irakurzaletasuna bultzatzeko. Plan hau hezkuntza-komunitate guztientzako bideratuta dago.

Ikasleek literaturarekin harremana izateko eta beraien interesa pizteko, irakurketa planak hainbat jardura eskaintzen du. Izan ere, adinaren arabera jardura desberdinak proposatzen ditu, beraz, ikastetxei ideiak emateko balio duen baliabidea ere da, hauek eskolan integratzeko aukera ematen dietelako. Kasu honetan, HHko eta LHko haurrei literaturara murgiltzeko ekintza eta proiektu asko eskura uzten ditu, hala nola ipuin kontaketak, dibertitzeko helburuarekin pertsona batek beste batzuei istorioak kontatzea, teatro-testuak, istorio bat irakurri eta gero antzeztea, Amaroatxo, Euskal Mitologia ezagutzeko txokoa non jokoak, kanta eta pertsonai horien istorioak agertzen diren eta abar. Halaber, irakurketa erak agertzen dira, klasean erabili daitezkeen dinamikak direnak irakurzaletasuna sustatzeko zein literaturarekin dagoen harremana garatzeko. Haiek irakurketa partekatuak, irakurketa dialogikoa, non tertulia literario dialogikoak sartzen diren, bikoteka irakurtzea, boz gorako irakurketa, irakurketa gidatua eta bakarkako irakurketa dira.

Aipatutakoa kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzako irakurketa planak literatura lantzeko eta sustatzeko ideia anitzak gure eskura uzten ditu.

## 2.5. Aurretiko estudioak eta ikerketak

Azpiatal honetan ikerketa hau burutu baino lehen egindako estudio eta ikerketa batzuk agertzen dira Haur eta Gazte Literaturaren presentzia hezkuntza sisteman nolakoa den urteetan zehar interesa piztu duela jakiteko. Alegia, jarraian izendatuko diren lanetan bai gaia bai ikerketa-eredua lan honen antzekoak dira.

- Piñero, A.R. (2012). *Creencias del profesorado sobre Literatura infantil: Estudio Exploratorio*. Lan honen bidez Haur Hezkuntzako irakasleek Haur Literaturari buruz zituzten sinesmenak ezagutu nahi ziren bai eta sinesmenaren eta irakasleen jokaeraren arteko harremana ere, hau da, literatura gelan nola lantzen zen eta zein presentzia zuen.

Ikerketa Mula (Murtzia) izeneko herrian zeuden Haur eskola eta eskola batean burutu zen, Haur Hezkuntzan jarduten zuten irakasleek parte hartzeko eta bi tresna erabili ziren arestian aipatutako helburua aztertzeko: elkarrizketa, HGLri buruzko galderez osatuta zegoena, eta behaketa. Azken hau aurrera eramateko egilea elkarrizketatutako irakasleen gelara joan zen bertan literatura nola lantzen zen zuzenean ikusteko. Guztira hamaika irakaslek parte hartu zuten, lehenengo zikloan lan egiten zuten lauk eta bigarren zikloan lan egiten zuten zazpik.

Bi tresna horiei esker, emaitza desberdinak atera ziren. Batetik, irakasle guztiek ohiko irakurleak zirela eta ondo pasatzeko irakurtzen zutela adierazi zuten, baina askok Haur Literatura ez zutela erosten ezta irakurtzen esan zuten. Gainera, gai horri buruzko formakuntza gutxi burutu zutela eta albumarekin erlazionaturiko formakuntzak jaso nahi zituztela aldarrikatu zuten. Bestetik, irakasleek literatura ez dela soilik gauzak irakasteko aipatu zuten, baina behaketari esker, batez ere lexikoa edo eduki berria lantzeko erabiltzen zutela ikusi zen. Literatura sustatzeko jarduerak egiten saiatu arren, gehienak programazioan zeuden eta normalean errepikatzen ziren. Azkenik, gelako liburutegia egunero erabiltzen zutela adierazi zuten eta normalean literaturarekin erlazionaturiko jarduerak lehenengo orduan edo patio ostean burutzen zituztela esan zuten, baina behaketaren medioz txoko horretara joateko askatasuna mugatua zela ikusi zen, konkretuki bigarren zikloan, ikasleek egunero txoko batean egon behar zutelako eta ez nahi zuten txokoan.

Beraz, ondorioak bezala egileak irakasleek erabiltzen zuten ikuspegi metodologikoa desegokia zela literatura testuak soilik gauzak ikasteko kontuan hartzen zirelako eta ez gozamina sustatzeko ipini zuen. Halaber, Haur eta Gazte

Literaturari buruzko ezagutza gutxi izatea, liburuak ez erostea edo ez irakurtzea eta HGL lantzen duten argitaletxeak ez ezagutzea eragin zuen soilik argitaletxeek zuzenean eskaintzen zizkieten testuak kontuan hartzea, horiek egokiak ziren ala ez jakin barik. Horregatik, HGLri buruzko prestakuntzaren beharra funtsezkoa zela aldarrikatu zuen, irakasleek literaturaren eta haurren arteko erlazioa sustatzeko, bitartekariaren rola hartuz.

- Arazola, C. (2016). *¿Cómo se trabaja la literatura en Educación Infantil?*. Lan honen bitartez Haur Hezkuntzako etapan literatura nola lantzen den jakin nahi da. Horretarako, Arjonillango (Jaén) eskola batean lan egiten zuten hiru irakasleri elkarrizketa bat egin zitzaion, hezkuntzan hogeitun urte baino gehiagoko esperientzia zeukatenei, beraiek literatura nola lantzen zuten eta horri buruz zein iritzia zuten ezagutzeko.

Behin elkarrizketa eginda, irakasleek literaturarekiko interesa handia zeukatela argi geratu zen. Izan ere, guztiek metodologia aktiboa erabiltzen zutelako adierazi zuten eta baliabide desberdinak erabiltzen zituzten haurrei motibatzen eta literaturarekiko interesa pizteko, hala nola txotxongiloak, mozorroak, pelikulak eta abar. Hala ere, guztiek haurrekin edozein genero mota erabili ahal zela esan arren, gehienbat ipuinak eta poesia erabiltzen zituztela adierazi zuten, beste generoak alde batera utziz.

Beraien erantzunak erreparatzean desberdintasunak ere aurkitu ziren, batez ere literatura lantzeko erabiltzen zuten denboran eta ebaluazio eran. Denborari buruz hitz egitean, irakasle batek egun guztietan patio ostean literatura lantzen zuela adierazi zuen, beste batek astean bi egunetan eta azkenak, berriz, astean behin. Ebaluazioa egiterako orduan, batek behaketaren medioz egiten zuen, beste batek galderen bidez eta azkenak, ikasleak ideia nagusiak ateratzeko teknika erabiltzen zuen.

Beraz, ondorio orokorrak bezala, hainbat faktorerengatik (denbora faltagatik, beste irakasgaiei emandako denboragatik, ikasle asko izateagatik...) irakasleek literaturari denbora gutxi eskaintzen diotela, ipuinak hautatzerakoan hezkuntza-sistemaren interesak kontuan hartzen dituztela umeen interesak baino eta liburu bat eskuratzeko informazioa jaso behar dugula, hau da, liburua egokia den ala ez jakiteko ezagutza minimoa izatea beharrezkoa dela eta iragarkietan ikusten delako edo modan dagoelako ez dugula hautatu behar ipini zuen.

- Morar, I.C. (2017). *Rescatar a Carmen Kurtz para la educación literaria de Primaria*. Lan honek Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohitura nolakoa zen eta irakasleek literaturari buruz zeuzkaten iritziak zeintzuk ziren, irakurzaletasuna sustatzeko zein metodologia erabiltzen zuten eta Carmen Kurtz idazlea ezagutzen zuten ikertzen du. Hori lortzeko, Zaragozako bi eskola desberdinetan inkestak burutu ziren bertan zeuden ikasleek zein irakasleek parte hartzeko. Guztira hamar irakaslek eta hogeik ikasle irakurlek inkesta erantzun zuten.

Irakasleetan zentratuz, guztiek irakurtzea ikasleen garapenerako ezinbesteko osagaia dela esan zuten eta horregatik irakurzaletasuna sustatzeko irakurketa partekatuak eta liburuen aukeraketa askea kontuan hartzen zuten. Izan ere, irakasleen artean gelako edo eskolako liburutegia metodologia bezala asko erabiltzen ziren ikasleengan irakurtzeko ohitura bultzatzeko. Horrekin lotuta, guztiek HGL baloreak lantzeko igorlea bezala ikusten zuten edozein gaiari buruz hitz egiten duelako, beraz, literatura sustatzea oso garrantzitsua dela adierazi zuten.

Ikasleetan zentratuz, guztiek irakurtzea oso garrantzitsua dela adierazi zuten, baina irakurtzean plazera sentitzen zuten irakasleen kopurua desberdina zen bi eskolak konparatuz, eskola batean % 80k plazer handia sentitzen zutela liburuak irakurtzean adierazi zutelako eta bestean, aldiz, soilik % 40a. Hala ere, ikasle guztiek bik izan ezik aisialdian liburu bat irakurtzen ari zirela adierazi zuten eta normalean liburuaren titulua kontuan hartzen zuten liburu bat erosteko.

Inkestei eta proposamen didaktikoari esker (6. mailan Carmen Kurtz idazlearen hiru liburu jardueren bitartez lantzea) hainbat ondorio atera ziren: batetik, istorioa ikaskuntzarako ezinbesteko tresna zela, ikasleek plazer gehiago sentitzen zutela ahoz transmititzen diren obrak entzuten irakurtzen baino eta irakasleek ikasle gaituak garatzeko beharra zutela eta horretarako irakurtzeko ohitura sustatu behar zutela.

- Neira-Piñeiro, M.R. eta Martín-Macho, A. (2020). *Los futuros maestros de infantil ante la educación literaria: análisis de sus creencias sobre la literatura infantil*. Kasu honetan, etorkizunean Haur Hezkuntzako irakasle bezala lan egingo zutenei egindako ikerketa bat da. Horretarako, bi unibertsitatei inkesta bat bidali zitzaion, non literaturari buruzko galderak agertzen ziren ikasleek horri buruz zer uste zuten plazaratzeko eta literaturarekin zeukaten harremana ikertzeko.

Guztira hirugarren mailako 145 ikaslek parte hartu zuten eta inkesta literaturarekin erlazionaturiko ikasgai bat burutu baino lehen egin zen.

Ikasleek inkesta erantzun ostean, haiek gabeziak zituztela Haur eta Gazte Literaturaren gaian argi geratu zen. Denek literatura oso garrantzitsua zela adierazi zuten, baina irizpide falta zutela testu literarioak balioztatzeko ikusi zen. Izan ere, batzuk Haur literaturak dituen ezaugarrien kontra zeuden, % 41,3k egitura errepikakorrak dituen liburuak alde batera ustea adierazi zutelako. Bestetik, obrak baliabide pedagogiko bezala ikusten zuten literaturarekiko zaletasuna pizteko tresna bat bezala baizik (% 65,1). Gainera, % 49,3k ez zituztela beraiei gustatzen zaizkien obrak hartuko esan zuten, helduari eta haurrari obra berdina gustatzeko aukera hori ezinezkoa zela adieraziz. Hala ere, gehienak (% 73, 2) edozein gaia lantzearen alde zeuden. % 53,46k, aldiz, familia kontuan hartu behar dugula esan zuten, hau da, haiek ados egon behar dutela liburuaren aukeraketan.

Arestian aipatutako lanak ikusita, Haur eta Gazte Literaturari buruzko kezka dagoela argi dago, batez ere hezkuntza arloan, haren presentzia hezkuntza-etapa guztietan ikertu delako, ikasleen, irakasleen eta etorkizunean irakasle bezala lan egingo duten ikuspegiak aztertuz.

### **3. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK**

Nire ustez, Haur eta Gazte Literatura eskolan egon arren, ez zaio hainbeste garrantzirik ematen irakasgai espezifikoetan arreta ipintzen delako, literatura jarduera osagarri bezala ulertuz. Horrek eragiten du ikasleek literaturarekin harreman gutxi izatea eta bizitzarako balio ez duen alderdia dela ondorioztatzea. Gainera, agian irakasle askok literaturarekin zerikusia duen formakuntza ez dute jaso, beraz, horri buruzko jarduerak egiteko ahalmena ez daukate, bakarrik irakasgaietan agertzen diren testuak landuz. Beraz, honako hauek lirateke lan honetan aztertu nahi diren hipotesiak:

1. Haur eta Gazte Literaturaren presentzia urria da eskolan.
2. Eskoletan ez da Haur eta Gazte Literatura jorratzen.
3. Irakasleek ez dituzte Haur eta Gazte Literaturarekin zerikusia duten jarduerak erabiltzen.

4. Haur Hezkuntzan Haur eta Gazte Literaturaren presentzia handiagoa da Lehen Hezkuntzan baino.

Horretaz gain, lan honen bidez bestelako helburuak lortu nahi dira:

- Irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak edo jarduerak ezagutzea.
- Eskoletan aritzen diren irakasle batzuen ideiak eta pentsaerak HGLri buruz jakitea.
- Eskoletan Haur eta Gazte Literaturari ematen zaion garrantzia ezagutzea.

## **4. METODOLOGIA**

Gradu Amaierako Lan hau ikerketa kuantitatiboa da, zenbakizko datuak bilduz gertakariak azaltzen, aurreikusten eta kontrolatzen dituena (Gay, 1996, apud de Pelekais, 2000). Beraz, informazio estatistiko zehatza ematen duen ikerketa mota da. Jarraian, metodo kuantitatiboa kontuan hartuz sortu den materiala zein izan den, zein testuingurutan egin den, nortzuek parte hartu duten eta egindako prozesua azalduko dira.

### **4.1. Materiala**

Inkesta datuak biltzeko balio duen tresna da eta horretarako hainbat galderaz osatuta dago, pertsona talde konkretu batek galdera horiek erantzuteko eta haiei buruzko nahi den informazioa izateko. Izan ere, ikerketa teknika honen bidez datu zehatzak eskuratu eta denbora gutxian lortu daiteke (Alelú et al., d.g.).

Ikerketa kuantitatiboa aurrera eramateko eta hipotesiak baieztatzen edo ezeztatzen diren jakiteko, material gisa inkesta erabili da, zehazki inkesta itxia. Mota hori erabili denez, inkesta burutzen duen pertsonak galdera bakoitzean erantzun zehatz batzuk ikusiko ditu eta horietako bat aukeratu beharko du bere ideiarekin bat datorrena. Horren bidez, era azkarrago batean erantzuteko aukera ematen da, soilik erantzun bat hautatu behar dutelako, beraien pentsamenduak, esperientziak edo egoerak idatzi barik, beraz, erantzuteko probabilitatea igo daiteke.

## 4.2. Testuingurua eta parte-hartzaileak

Haur eta Gazte Literaturaren presentzia eskolan nolakoa den jakiteko eta hezkuntza-etapek eragina duten ala ez ikusteko, inkesta Euskal Herriko Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzenduta dago. Horretarako, Bizkaian dauden eskola desberdinei galdeketa bidali zaie, bertan jarduten duten irakasleek erantzuteko.

Hemeretzi eskolek parte hartu dute, legezko izaeraren aldetik bai publikoak bai itunpeko/pribatuak direnak, zehazki hamar publiko eta bederatzi itunpeko/pribatuko eskolek erantzun dute. Hauek Bilbon, Barakaldon, Portugaleten, Santurtzin, Trapagan eta Getxon kokatuta daude eta Bilbo handiaren zonaldean dauden herrietara bidaltzea erabaki da nire testuinguruan zein nolako papera duen literaturak ezagutzeko. Guztira 117 irakaslek inkestak bete dituzte, Haur Hezkuntzako 70ek eta Lehen Hezkuntzako 47k.

## 4.3. Datuak nola landu: egindako prozesua

Arestian aipatu den bezala, datuak lortzeko galdera berdinez osatuta dauden inkestak burutu dira, hau da, eredu bat egin ondoren, gehiago sortu dira eskola bakoitzari bere inkesta propioa bidaltzeko eta erantzunak desberdintzeko. Hauek interneten burutu dira, Google Drive-ean, hain zuzen ere. Bertan Google inprimaki izeneko tresna dago, inkestak sortzeko balio duena, beraz, hori erabili da materialari forma emateko.

Inkestak era azkarrago eta eroso batean bidaltzeko, gmaila erabili da. Horretarako, ikastetxeen e-mailak bilatu dira eta inkestarekin batera, mezu bat bai euskaraz bai gaztelaniaz bidali zaie lana zeri buruz doan jakiteko.

Galdeketa hamabi galdera itxiaz osatuta dago (Ikus eranskin 1). Galdera bakoitzak hiru erantzun posible ditu, hiru galdera izan ezik, horietako bat bi erantzun posible dituelako eta beste biak, aldiz, lau. Galdera guztietan erantzunak “bai”, “ez” eta “erantzunik gabe” dira, baina lau erantzun posible dituzten galderetan “noizean behin” erantzuna ere agertzen da. Hala ere, bi galderatan lehen esandako erantzun posible horietan zerbait gehiago gehitu zaie, informazio zehatzagoa lortzeko. Bi erantzun posible dituen galderan, aldiz, guztiz desberdina da. Kasu honetan, Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza artean aukeratu behar dute. Galderak lanaren hipotesiak zein helburuak oinarritzat hartuta gauzatu dira. Hori ikusteko, jarraian galderak zerrendatuko dira:

- Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako irakaslea zara?
- 1. Liburuak irakurtzen dizkiezu ikasleei?

- 2. Ikasleei pelikulak jartzea nahiago duzu literatura testuak baino?
- 3. Haur literaturarekin zerikusia dauzkaten jarduerak egiten dituzu (irakurtzea, antzerkiak, tertuliak...)?
- 4. Klasean lantzen dituzun ipuinak zuk hautatzen dituzu?
- 5. Ipuin tradizionalaz gain, gaur egun dauden Haur Literaturako bestelako testuak ezagutzen edo irakurri dituzu?
- 6. Ikasleei ipuin bat irakurri aurretik, ipuin hura irakurtzeko eta aztertzeko aukera/joera duzu?
- 7. Irakurzaletasuna sustatzeko, eskolan proiektuak daude?
- 8. Uste duzu Haur Literatura Haur Hezkuntzan soilik landu behar dugula?
- 9. Uste duzu Haur Literatura onuragarria dela haurrentzat. Alegia, gauzak ikasteko, disfrutatzeko, balio duela?
- 10. Maisu-maistra izateko, Haur Literaturari buruzko derrigorrezko formakuntza beharrezkoa dela uste duzu?
- 11. Zure irakasle ikasketetan Haur Literaturari buruzko nahiko formakuntza jaso zenuela uste al duzu?


Azkenik, irakasleen erantzunak zeintzuk izan diren argi ikusteko, grafikoak erabili dira eta horiek Microsoft Wordean sortu dira. Egia da lehen aipatutako tresnan grafikoak sortzen direla, baina eskola bakoitzari inkesta eredu bat bidali zaionez soilik eskola horretako datuak agertzen dira eta irakasle guztien erantzunak elkartu nahi izan direnez grafiko berriak burutu dira. Hori lortzeko irakasle guztien erantzunak banan-banan aztertu dira, geroago erantzun berdinak elkartzeko, lanaren hipotesiak zein helburuak lortuz.

## **5. ESKURATUTAKO DATUAK**

Atal honetan eskola desberdinetan lan egiten duten Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak idatziz eta grafikoen bidez adierazita agertuko dira, eskuratutako datuak argiago ikusteko.



Metodologia zatian aipatu den bezala, guztira hemeretzi eskolako 117 irakaslek parte hartu dute. Hauek hezkuntza-etapa desberdinetan lan egiten duten irakasleak dira, beraz, jarraian agertzen den grafikoa Haur Hezkuntzako 70 eta Lehen Hezkuntzako 47 irakaslek inkesta bete dutela ikus daiteke.




1. Grafikoa: ikerketan parte hartu duten irakasle kopurua.

Ikerketan parte hartu dutenei buruzko informazioa eman ostean, galdera bakoitzean ateratzen diren erantzunak jarraian grafikoki agertuko dira. Kasu honetan hiru grafiko sortu dira, orokor bat non irakasle guztien erantzunak adierazita egongo diren eta bai Haur Hezkuntzako bai Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak desberdintzeko beste bi. Grafiko orokorra oinarri bezala erabili arren, zerbait adierazgarria badago beste grafikoak kontuan hartu dira.

1. Galdera. Liburuak irakurtzen dizkiezu ikasleei?

### HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Noizean behin ■ Erantzunik gabe



2. Grafikoa: lehenengo galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

### LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Noizean behin ■ Erantzunik gabe



3. Grafikoa: lehenengo galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Noizean behin ■ Erantzunik gabe



4. Grafikoa: lehenengo galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.


Galdera honetan, % 73k (86 irakaslek) “bai” erantzuna aukeratu dute, hau da, irakasle horiek egunero edo astero ikasleei liburuak irakurtzen dizkietela esan dute, baina Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako grafikoa erreparatzen baditugu, desberdintasunak daudela nabaritu daiteke.

Haur Hezkuntzako irakasle gehienek, % 94k (66 irakaslek) ikasleei liburuak egunero edo astero irakurtzen dizkietela adierazi duten bitartean, Lehen Hezkuntzako irakasleen artean banaketa handiagoa ikus daiteke. Lehen Hezkuntzako erantzun artean, irakasle kopuru gehiagok “noizean behin” erantzun dute, hilabetean gehienez bi egun ikasleei liburu bat irakurtzen dietela adierazten duena, baina beste irakasle batzuek “bai” erantzun dute, bi aukera haien arteko emaitzak antzekoak izanez, soilik % 3ko aldea dagoelako. “Ez” aukera hautatu dutenen artean, gehienak Lehen Hezkuntzako irakasleak izan dira.

2. Galdera. Ikasleei pelikulak jartzea nahiago duzu literatura testuak baino?

### HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



5. Grafikoa: bigarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

### LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



6. Grafikoa: bigarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




7. Grafikoa: bigarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Lehen Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako irakasleek literatura testuak nahiago dituztela pelikulak baino argi dago, hiru grafikoetan “ez” erantzun dutenen ehunekoa besteak baino askoz gehiago nabarmentzen delako. Izan ere, orokorrean irakasleen % 85ek (99 irakaslek) “ez” aukeratu dute, % 9k (11 irakaslek) “bai” eta soilik % 6k (7 irakaslek) “erantzunik gabe”. Hala ere, Lehen Hezkuntzan hiru aldiz gehiago erabiltzen dira Haur Hezkuntzan baino.

3. Galdera. Haur literaturarekin zerikusia dauzkaten jarduerak egiten dituzu (irakurtzea, antzerkiak, tertuliak...)?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Noizean behin ■ Erantzunik gabe



8. Grafikoa: hirugarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Noizean behin ■ Erantzunik gabe



9. Grafikoa: hirugarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Noizean behin ■ Erantzunik gabe




10. Grafikoa: hirugarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

% 72k (85 irakaslek) Haur literaturarekin zerikusia dituzten jarduerak burutzen dituzte, laurden bat baino gehiagok, zehazki % 19k “noizean behin”, % 8k “ez” dituzte egiten eta % 1ek “erantzunik gabe”. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako grafikoei erreparatu, desberdintasun minimoa dagoela ikus daiteke. “Bai” erantzuna aukeratu duten ehuneko handiagoa da Haur Hezkuntzako irakasleen artean, beste hezkuntza-etaparekin % 4ko aldea izanez, baina Lehen Hezkuntzako irakasle gehiago dago noizean behin literaturari buruzko jarduerak egiten dituztela esaten dutenak Haur Hezkuntzako irakasleak baino. Hala ere, bi hezkuntza-etapetan “ez” erantzuna aukeratu duten irakasle kopurua urria da.

4. Galdera. Klasean lantzen dituzun ipuinak zuk hautatzen dituzu?

### HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



11. Grafikoa: laugarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

### LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



12. Grafikoa: laugarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




13. Grafikoa: laugarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Hiru laurden baino gehiagok, % 78k (91 irakaslek), klasean lantzen diren ipuinak beraiek hautatzen dituztela esan dute. % 14k (16 irakaslek), aldiz, “ez, irakasgaiaren materialetik soilik hartzen ditut” laukia aukeratu dute eta % 8k (10 irakaslek) “erantzunik gabe”. Dena den, bi hezkuntza-etapen grafikoak erreparatuz eta haien artean konparatuz, Haur Hezkuntzako irakasle kopuru handiagoa dago “bai” erantzun dutenak eta horregatik, “ez” erantzuna ez da laurden batera ailegatzeko (% 11), Lehen Hezkuntzako irakasleen grafikoan ez bezala, bertan “ez” erantzuna laurdena gainditzen duena (% 17).

5. Galdera. Ipuin tradizionalaz gain, gaur egun dauden Haur Literaturako bestelako testuak ezagutzen edo irakurri dituzu?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



14. Grafikoa: bosgarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



15. Grafikoa: bosgarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




16. Grafikoa: bosgarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Galdera honetan ia irakasle guztiek soilik ipuin tradizionalak ezagutzen ez dituztela hauteman daiteke, % 91k (107 irakaslek) gaur egungo Haur Literaturako testuak ezagutzen edo irakurri dituztela adierazi dutelako. Horrek eragiten du bakarrik % 6k (7 irakaslek) “ez” aukera hautatzea eta % 3k (3 irakaslek) “erantzunik gabe”. Dena den, Haur Hezkuntzako irakasle gehiago dago bakarrik ipuin tradizionalak ezagutzen dituztela, % 9k (6 irakaslek), Lehen Hezkuntzako irakasleak baino, kasu honetan % 2 (irakasle bat).

6. Galdera. Ikasleei ipuin bat irakurri aurretik, ipuin hura irakurtzeko eta aztertzeko aukera/joera duzu?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



17. Grafikoa: seigarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



18. Grafikoa: seigarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




19. Grafikoa: seigarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Grafikoak ikusita, irakasleen artean ikasleei ipuin bat irakurri aurretik ipuin hura irakurtzeko eta aztertzeko joera dagoela ikus daiteke, % 79k (92 irakaslek) hori egiten dutela jakinarazi dutelako, baina % 17k ez dituzte irakurketak prestatzen. “Bai” erantzuna behatzen bada, Haur Hezkuntzako irakasle apur bat gehiagok jarduera hori antolatzen dutela ikus daiteke, soilik % 3ko desberdintasuna Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunekin konparatuz.

7. Galdera. Irakurzaletasuna sustatzeko, eskolan proiektuak daude?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



20. Grafikoa: zazpigarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



21. Grafikoa: zazpigarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




22. Grafikoa: zazpigarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Galdera honetan, irakasleen % 78k beraien eskolan irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak daudela aldarrikatu duten arren, % 14k “ez” erantzun dute eta % 8k, aldiz, “erantzunik gabe”, inkongruentzia egonez. Izan ere, eskola batzuetan bertan lan egiten duten irakasleen erantzunak desberdinak izan dira, batzuk eskolan proiektuak daudela eta beste batzuk ez daudela adierazi dutelako, erantzun zehatz bat eman barik.

8. Galdera. Uste duzu Haur Literatura Haur Hezkuntzan soilik landu behar dugula?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



23. Grafikoa: zortzigarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




24. Grafikoa: zortzigarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.



## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




25. Grafikoa: zortzigarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Irakasle gehienek, % 95ek (111 irakaslek) “ez” erantzun dute, beraz, Haur Literatura Haur Hezkuntzan soilik landu behar ez delakoan ados daude. % 5ek, aldiz, “erantzunik gabe” erantzun dute, baina inork ez du “bai” erantzun, Haur Literatura hezkuntza-etapa horretan soilik lantzearen ideia hori alde batera utziz.

9. Galdera. Uste duzu Haur Literatura onuragarria dela haurrentzat. Alegia, gauzak ikasteko, disfrutatzeko, balio duela?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



26. Grafikoa: bederatzigarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



27. Grafikoa: bederatzigarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe




28. Grafikoa: bederatzigarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Irakasle batek izan ezik, beste guztiek, 116 irakaslek, Haur Literatura haurrentzat onuragarria dela uste dute. "Erantzunik gabe" laukia aukeratu duen irakasle bakarra Lehen Hezkuntzako irakaslea da.

10. Galdera. Maisu-maistra izateko, Haur Literaturari buruzko derrigorrezko formakuntza beharrezkoa dela uste duzu?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



29. Grafikoa: hamargarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.


## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



30. Grafikoa: hamargarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA




31. Grafikoa: hamargarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Irakasle askok, % 78k (91 irakaslek) Haur Literaturari buruzko derrigorrezko formakuntza beharrekoa dela uste arren, irakasleen % 22k “ez” edo “erantzunik gabe” laukiak aukeratu dituzte, zehazki % 14k “ez” eta % 8k “erantzunik gabe”. Hala ere, Lehen Hezkuntzako irakasle gehiago dago “ez” erantzuna aukeratu duena, % 21a, Haur Hezkuntzako irakasleak baino, soilik % 8k derrigorrezko formakuntza ez dela beharrekoa adierazi dutelako, beraz, hezkuntza-etapen artean % 13ko desberdintasuna aurkitzen da.

11. Galdera. Zure irakasle ikasketetan Haur Literaturari buruzko nahiko formakuntza jaso zenuela uste al duzu?

## HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



32. Grafikoa: hamaikagarren galderan jasotako Haur Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK


■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



33. Grafikoa: hamaikagarren galderan jasotako Lehen Hezkuntzako irakasleen erantzunak.

## OROKORRA

■ Bai ■ Ez ■ Erantzunik gabe



34. Grafikoa: hamaikagarren galderan jasotako irakasle guztien erantzunak.

Inkestako azken galderan, bai Haur Hezkuntzako bai Lehen Hezkuntzako irakasleen arteko desberdintasun handirik ez da ikusten. Bi hezkuntza-etapen grafikoak erreparatzen badira, hiru laurden baino gehiagok “ez” erantzun dute, hau da, irakasle askok magisterio ikasten zutenean Haur Literaturari buruzko formakuntza jaso ez zutela adierazi dute. Horregatik, orokorrean % 78k (91 irakaslek) “ez” erantzun dute, % 14k (17 irakaslek) “bai” eta % 8k (9 irakaslek) “erantzunik gabe”.

## 6. ONDORIOAK

Irakasleen erantzunak zeintzuk diren jakinda, atal honetan datuen interpretazioa agertuko da bai eta zein nolako ondorioak atera diren ere. Horiek osatzeko, marko teorikoan eta beste orri desberdinetan agertutako informazioa erabiliko da.

Covak (2004) ozen irakurtzea jarduera soziala dela esaten du, ahotsaren tonua, ahoskera, erritmoa eta jariakortasunari esker, testu idatzi bati bizitza ematen zaiolako, geroago entzuleek horri buruz amesteko, gauzak irudikatzeko eta emozioak azalazteko. Gainera, irakasleak hurrei irakurtzen badie, horrek onurak ekartzen dizkiela ere adierazten du, hala nola lotura afektiboak eta sozialak sortzea, hizkuntza handitzea eta aberastea, irakurketa eredu bat izatea, entzuteko eta arreta mantentzeko gaitasuna garatzea, kultura desberdinak ezagutzea eta sormena garatzea. Halaber, Pintadok (2015) onura horiek aparte beste batzuk eskaintzen dituela esaten du, adibidez, irakurzaletasuna sustatzen du, adimen emozionala lantzeko aukera ematen du, baloreak erakusten eta irakasten ditu, autokontzeptua sortzen laguntzen du eta gai

desberdinei buruz hausnartzeko aukera ematen du. Horregatik, egunero literatura testu bat ozen irakurtzea oso garrantzitsua den ekintza da, haurraren garapenean eragin zuzena duelako.

Lehenengo galderan, irakasleen hiru laurden baino gehiagok liburuak ikasleei irakurtzen dizkietela ikusteko aukera egon da. Hala ere, Haur Hezkuntzako irakasleek ohitura gehiago daukate ekintza hori burutzen, grafikoetan ikusi ahal den bezala, Lehen Hezkuntzako irakasle gehiagok “noizean behin” edo “ez” erantzuna aukeratu dutelako eta horrek hilabetean gehienez bi egun liburu bat irakurtzen dietela edo ohitura hori inoiz ez dela egiten esan nahi du. Irakasle horiek egunero edo astero jarduera hori ez egiteak hainbat faktorerengatik izan daitekeela ondoriozta daiteke, adibidez, denbora faltagatik, beste irakasgaiei garrantzia gehiago emateagatik, nahi ez dutelako eta abarregatik, baina ez dugu ahaztu behar, arestian aipatu den bezala, ikasleei irakurtzea oso baliagarria dela.

Bigarren galderan, aldiz, irakasleen artean ez da egon hainbeste desberdintasunik. Alegia, gehienak literatura testuen alde jarri dira, beraz, zein nolako onurak ekartzen dituen literaturak argi daukatela nabaritu daiteke. Izan ere, literaturarekin ondo pasatzeaz gain, Baranbiok (2019) pentsamendu logikoa eta kritikoa garatzen, errealitatea ulertzen, estresa gutxitzen, baloreak ikasten, emozioak erregulatzen, harreman sozialak hobetzen, ahalmen sortzailea garatzen eta memoria trebatzen laguntzen duela esaten du, baina zinemak ere onurak ekartzen dituela jakin behar dugu.

Zinema entretenitzeaz gain, informazioa transmititzeko ikus-entzunezko baliabidea da, sormena pizten duena eta ikusleen pentsamendu kritikoa garatzen duena, gai desberdinei buruz hausnartzeko aukera ematen duelako (Segarra, 2015). Horretaz gain, errealitatea ulertzen laguntzen du, gizartean dauden arazoak erakusten direlako, gaur egungo edo antzinako kultura desberdinak ezagutzeko aukera ematen du, baloreak erakusten ditu, emozioak lantzeko balio du eta harreman sozialak indartzen ditu (Universia, 2016; Hodgson & Burque, d.g.).

Literatura testuen eta zinemaren abantailak ikusi ostean, argi dago biak oso baliagarriak direla ikasleekin erabiltzeko, gozatzeaz gain, arestian aipatutako onurak ekartzen dituztelako. Beraz, ez dago bata bestea baino hobeagoa, hau da, biak aproposak dira ikasleekin erabiltzeko eta oreka mantentzea egokia izango litzaketela esan daiteke, biekin behar duten balioa emanez eta haurren interesa piztuz.

Hurrengo galderan irakasle kopuru askok Haur Literaturarekin erlazionaturiko jarduerak egiten dituztela ikusi da eta hori oso positiboa da, ipuinak irakurtzen, kantak abesten,

esaerak edo asmakizunak lantzen eta abarren bidez, literatura komunikatzeko baliabide dela konturatzen garelako, hizkuntzaren eta komunikazioaren ikaskuntzan txertatuz (Alonso, 2008). Hala ere, lehenengo galderan bezala, Haur Hezkuntzako etapan jarduera horiek gehiago lantzen dira, baina bi hezkuntza-etapen artean ez da hainbeste alderik egon.

Laugarren galderara pasatuz, normalean irakasleek gelan nahi dituzten ipuinak lantzen dituzte, baina batzuek, batez ere Lehen Hezkuntzako irakasleen artean, irakasgaiaren materialetatik soilik hartzen dituztela adierazi dute eta horrek faktore desberdinengatik izan daitekeela ondoriozta daiteke, adibidez, haurrentzako aproposak diren ipuinak ezagutzen ez dituztelako, irakasgai bakoitzean dauden ipuinekin nahikoa dela uste dutelako, eskolak eskaintzen dituen liburuak erabiltzen dituztelako eta abar. Dena den, arestian aipatu den bezala, gehienek nahi duten liburua lantzen dute eta hori hurrengo galderarekin lotu daiteke, gaur egun irakasle bezala jarduten dutenak gutxienez literatura testuetan eguneratuta daude, ipuin tradizionalak ezagutzeaz gain, Haur Literaturako bestelako testuak ezagutu edo irakurri dituztela esan dutelako eta hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke, hala nola gaiari buruz interesa daukatelako, literaturarekin harreman estua daukatelako, ikasleei literaturaren mundua zabala dela erakutsi nahi dietelako eta abar. Horri esker, aukera gehiago daukate ikasleekin literatura lantzeko.

Seigarren galderaren erantzunak ikusita, irakasleek ipuinak ikasleei irakurri aurretik horiek aztertzeko, irakurtzeko eta prestatzeko joera daukatela nabaritzen da eta hori oso positiboa da, istorioak ezagutzen badira, hau da, narrazioaren egiturak zein hizkuntza alderdiak, ipuin bat ondo kontatzeko aukera ematen du eta horren bidez, kontalariaren, ipuinaren eta entzuleen arteko erlazioa handitzen da, emozioak eta sentsazioak eragiten dira, haurrak kulturaren parte sentitzen dira eta literaturarekin harreman estuagoa sortzen da (Matías, 2009).

Bestetik, irakasle gutxik ipuinak ez dituztela prestatzen adierazi dute, beraz, aurretik aipatutako guztia lortzeko aukera galtzen da, ikasleei literaturaz gozatzeko plazera kenduz. Hori saihesteko, ikasleei ipuin bat irakurri baino lehen ipuin hura irakurtzeaz gain, Matíasek (2009) beste estrategia batzuk erabiltzea esaten du ikasleak istorioan murgiltzeko eta beraien arreta deitzeko: batetik, inguru lasaia sortzea eta bestetik, adierazkotasunaz baliatzea. Alegia, ahotsaren tonua monotonoa ez izatea, istorioa kontatzeko erritmoa aldatzea, isiluneak erabiltzea ezustekoak zein kuriositatea suspertzeko eta ahotsaren tinbrea eta bolumena aldatzea istorioko segun zein egoerak nabarmentzeko.

Beraz, denbora gehiago eskaintzen duen ekintza izan arren, prestakuntza ezinbestekoa dela ondoriozta daiteke bai eta etengabeko praktikak egitea ere, narrazio erraza, soila eta atsegina lortzeko (del Amo, 1964) eta entzuleek, kasu honetan ikasleek, literaturaz disfrutatzeke eta ikasteko.

Marko teorikoan erreparatzen bada, argi dago Haur Literaturak eragin handia duela haurren garapenean, beraz, eskolan irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak egotea garrantzitsua da, irakasleek zein nolako jarduerak egin ahal dituzten ikasleek literaturarekiko interesa izan dezaten jakiteko aukera daukatelako.

Hemeretzi eskoletatik bakarrik batean irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak ez daudela adierazi da bere osotasunean, baina beste eskoletan irakasle batzuek proiektuak ez daudela edo ez dakitela daudenik esan dute, hau da, eskola berean erantzun desberdinak agertu dira eta horretatik irakasle batzuen interesa gaiarekiko urria dela, koordinazio falta dagoela edo maila batzuetan bakarrik egiten dela ondoriozta daiteke. Hori aldatzea ezinbestekoa da, Máximak (2020) esaten duen bezala irakasle on batek eguneratuta egon behar du berak ematen dituen edukietan zein irakasteko irakaskuntza metodoetan, etengabeko formakuntza egotean jakin-mina daukala ikusten delako eta jarrera hori izateak ikasleengan eragina daukalako, gai horri buruz interesa piztuz. Orduan, eskolako proiektuak ezagutzean, irakasleak literaturari buruzko informazio gehiago izango du eta horren bidez zein nolako jarduera egin daitekeen ikasleekin jakingo du, ikasleen motibazioa handituz eta beraien harremana literaturarekin hobetuz.

Zortzigarren galderara pasatuz, irakasle gehienak literaturaren garrantziaz jabetu direla sumatu daiteke, horregatik Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan landu behar dugula adierazi dute. Porrsek (2011) hezkuntza-etapa horietan haurrak etengabeko garapen prozesuan daudela bai eta ingurunean dagoena ezagutzen eta barneratzen dutela ere esaten du, beraz, literatura txikitatik beraien bizitzan txertatzen bada eta lantzen jarraitzen bada, haien garapenean eragin zuzena izango du, onura asko ekarriz.

Izan ere, hurrengo galderan irakasle guztiek batek izan ezik HGL haurrentzat onuragarria dela esan dute, bai marko teorikoan bai lehen aipatutakoa ikusita zein nolako onurak ekartzen dituen baieztatu daitekeelako. Laburbilduz, literatura garapen linguistikoan, afektiboan, sozialean, sortzailean eta motorrean eragina du, horregatik, literaturaren integrazioa eskolan egotea ezinbestekoa da, baina Haur Literatura ez da azterketa batera soilik murriztu behar, baizik eta jarduera bat bezala ulertu behar dugu, haurrek literaturarekin harremanetan jartzeko, hartaz gozatzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko (Porrás, 2011).

Inkestako azken bi galdera erreparatzean, irakasleek literaturari buruzko derrigorrezko formakuntza beharrezkoa dela adierazi dute eta gehienek nahiko formakuntza jaso ez dutela aldarrikatu dute marko teorikoan ikusi ahal izan diren lanetan bezala, literaturaren alde daudela, baina ezagutza minimoak dituztela adierazi zutela. Horrek esan nahi du eskola batera lan egitera joan zirela prestakuntza barik, beraz, nola sustatuko dute ikasleei literaturaren garrantzia beraiek horri buruzko ideiak ez badituzte?

Haur eta Gazte Literaturaren presentzia eskolan egokia izateko eta eskaintzen dituen onurak baliagarriak izateko, Tejerinak (1997) irakasleek oinarrizko formakuntza izan behar dutela esaten du, plazer ikaragarria ematen duela eta gauzak irakasteko balio duela konturatzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da unibertsitateak etorkizunean irakasleak izango diren ikasle guztiei HGLri buruzko prestakuntza ziurtatzea, haiek zein nolako obrak dauden ezagutzeko eta hainbat irizpide kontuan hartuz aproposak direnak baloratzen eta aukeratzen jakiteko (Munita, 2018). Horren bidez lortuko da literaturaren papera eskolan aldatzea, irakasleek ikasleak literaturaren bidez motibatzen jakingo dutelako.

Azkenik, marko teorikoan aipatutako beste lanen emaitzak lan honetan atera diren emaitzekin konparatuz oso antzekoak direla nabaritu daiteke, denek literatura oso garrantzitsua dela eta onura asko ekartzen dituela argi daukatelako. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka eboluzioa dagoela ikus daiteke, adibidez, 2012an egindako ikerketan, irakasleek HGL ez zutela irakurtzen adierazi zuten eta gaur egun, aldiz, hori aldatu da, irakurtzeaz gain, horiek gelan landu baino lehen prestatzen dituztela esan dutelako, irakasleen interesa gaiarekiko handitu dela ikusiz.

Zoritxarrez, urteak pasa ahala irakasleek orokorrean Haur eta Gazte Literaturari buruz oso gutxi dakitela eta horregatik lan guztietan oinarrizko formakuntza izatea beharrezkoa dela ondorioztatzen jarraitzen da, hau da, arazo hori oraindik mantentzen da, ez soilik Bizkaian, beste lekuetan ere.

Galdera bakoitzeko interpretazioari esker, Gradu Amaierako Lan honetan ipinitako hipotesiak baieztatu edo ezeztatu diren ikusi da, ondorio orokorrak lortuz. Lau hipotesietatik lehenengo hirurak ezeztatu dira eta bakarrik azkena baieztatu da, datu onak ageriz. Hain datu onak ateratzeak, agian inkesta irakasle bolondresak erantzun dutelako eta haiek literaturarekin harreman handia dutelako izan daiteke, jarraian ikusi ahal den bezala.

Alde batetik, eskolak eta zehazki irakasleen papera ezinbestekoa dela lehenengo hiru hipotesiak ezeztatzeak ondorioztatu ahal da, azken finean haiek literatura irakasleen



bizitzan txertatuta egotea lortzen dutelako. Izan ere, inkestatu diren eskoletan irakurzaletasuna sustatzeko proiektuak dituzte eta irakasle askok beraien geletan literaturari buruzko jarduerak egiten dituzte, orduan Haur eta Gazte Literaturaren presentzia handia da. Hala ere, irakasle gehienek unibertsitatean literaturari buruzko formakuntza gehiago jasotzea aldarrikatu dute eta hori kontuan hartzea ezinbestekoa izango litzateke, oinarri minimoa izanda beraien ikasleentzako aproposak diren literatura testuak eta jarduerak inolako arazorik gabe jakingo dituztelako.

Irakasleek jarrera irekia daukatela literaturarekiko argi geratu da, askok nahiko formakuntza jaso ez duten arren, ikasleentzako zein nolako onurak ekartzen dituen konturatu direlako, beraz, hainbat gauza egiten saiatzen dira ikasleek literaturarekin harreman estuagoa sortzeko eta eskolatik kanpo ere haren garrantzia ikusteko. Izan ere, Lehen Hezkuntzako ikasle bezala egon nintzenean eta urte hauetan eskola batzuetara praktiketako ikasle bezala joatearekin konparatuz, literaturaren presentzia gelan hobetzen ari dela ikus daiteke eta hori lortzeko irakasleen jarrera ezinbestekoa izan da, gaur egun gutxienez irakasle gehienek astero literaturarekin erlazionaturiko jarduerak egiten dituztelako (ipuin kontaketak, antzerkiak, tertuliak, denon artean irakurtzea...) eta lehen, aldiz, unean uneko jarduerak.

Beste aldetik, arestian aipatu den bezala, azken hipotesia baieztatu da, hau da, Haur Hezkuntzan Haur eta Gazte Literaturaren presentzia handiagoa da Lehen Hezkuntzan baino, baina bi hezkuntza-etapen artean ez da hainbeste desberdintasunik egon, grafikoetan ikusi ahal den bezala, ehuneko alde txikia egon delako, bakarrik lehenengo galderan desberdintasun gogoangarria egonez.

Beraz, lan honen bidez Haur eta Gazte Literaturaren papera eskolan handia dela eta bai eskolak bai irakasleak ahaleginak egiten ari direla ikasleek literaturarekin goza eta ikas dezaketela ikusi da, etorkizuneko irakurle literarioak bihurtuz.

## **7. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Lan hau egitean aurkitu dudan zailtasuna eskolak erantzutea izan da. Guztira hirurogeita bi eskolatara bidali nuen inkesta, baina horietatik soilik hemeretzik erantzun didate, e-mailak laster bidali arren eta erantzuteko epea luzea izan arren, inkestak urritik urtarrilera arte bidali zirelako eta martxoan epea ixtea erabaki nuelako. Gainera, eskola batzuetan erantzun duten irakasleen kopurua urria izan da eta horrek hipotesiak baieztatzeke edo

ezeztatzeko aukera mugatzea eragin du, zenbat eta irakasle gehiagok erantzun orduan eta ondorio gehiago aterako liratekeelako. Hala ere, erantzun duten irakasleekin lana aurrera eramateko aukera egon da eta Haur eta Gazte Literaturaren presentzia Bilbo handiaren inguruan nolakoa den ikusi da, baina ikerketa kuantitatibo mota hau denborarekin eta instituzio batzuen babesarekin (Berritzeguneak, Kristau eskolako zuzendaritzak, Ikastolen Elkarteak...) egitea gomendatzen da nahi dituzun erantzunak lortzeko.

Bestalde, lan hau oinarri hartuta, bestelako lanak egin daitezke, hobekuntza proposamenak direnak:

- Inkestaren corpusa zabaltzea, hau da, Haur eta Gazte Literaturari buruzko galdera gehiago ipintzea eta horiek zehatzagoak izatea haren papera eskolan hobeto ezagutzeko.
- Inkestak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Alabako eskoletara bidaltzea, probintzien artean desberdintasunak dauden ala ez ikusteko.
- Eskola publiko eta pribatu batera joatea, Haur eta Gazte Literatura nola lantzen den ikusteko eta haien arteko desberdintasunak zeintzuk diren ezagutzeko.

## 8. BIBLIOGRAFIA

Alelú, M., Cantín, S., López, N. eta Rodríguez, M. (d.g.). Estudio de encuestas. <https://docplayer.es/2983730-Estudio-de-encuestas-marta-alelu-hernandez-sandra-cantin-garcia.html>

Alonso, Z. (2008). La literatura infantil; técnicas, actividades y estrategias de utilización. *La biblioteca escolar y la biblioteca de aula. Innovación y experiencias educativas*, 4, 1-8. [https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero\\_4/zenaidaalonsosanchez\\_laliteratura.pdf](https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_4/zenaidaalonsosanchez_laliteratura.pdf)

Arazola, C. (2016). *¿Cómo se trabaja la literatura en Educación Infantil?*. (Grado Amaierako Lana). Universidad de Jaén, Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, España.

[http://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/2969/1/Arazola\\_Ruano\\_Cristina\\_TFG\\_Educacin\\_Infantil.pdf..pdf](http://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/2969/1/Arazola_Ruano_Cristina_TFG_Educacin_Infantil.pdf..pdf)

Baranbio, Y. (2019ko abuztuaren 8a). *20 beneficios de la literatura* [Mezua blog batean].  
<https://eltinteroeditorial.com/20-beneficios-de-la-literatura>

Cerrillo, P. (2007). *Literatura infantil y juvenil y educación literaria: hacia una nueva enseñanza de la literatura*. Barcelona: Octaedro.

Cerrillo, P. (2016). La importancia de la literatura infantil y juvenil en la educación literaria. In Díez, A., Brotons, V., Escandell, D. eta Rovira, J. (Ed), *Aprendizajes plurilingües y literarios. nuevos enfoques didácticos Aprentatges plurilingües i literaris. nous enfocaments didàctics*. (32-42. or.). Alicante: Universitat d'alacant.

Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *CAUCE, Revista de Filología y su didáctica*, (12), 157-168. [https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/21795/file\\_1.pdf?sequence=1](https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/21795/file_1.pdf?sequence=1)

Colomer, T. (2010). La evolución de la literatura infantil y juvenil en España. *Book bird*, (1), 1-5. [https://www.ibby.org/fileadmin/template/main/bookbird\\_specialissue/BB\\_Spanish\\_July\\_Art2\\_Castellano\\_Rev.7-07.pdf](https://www.ibby.org/fileadmin/template/main/bookbird_specialissue/BB_Spanish_July_Art2_Castellano_Rev.7-07.pdf)

Cova, Y. (2004). La práctica de la lectura en voz alta en el hogar y en la escuela a favor de niños y niñas. *Sapiens. Revista universitaria de investigación*, 5 (2), 53-66. <https://www.redalyc.org/pdf/410/41050205.pdf>

236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. (Eusko Jauriaritza, 1-724)  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_heziberri\\_dec\\_curriculares/eu\\_def/adjuntos/OH\\_curriculumosoa.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjuntos/OH_curriculumosoa.pdf)

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA, zk. 9, 2016ko urtarrilaren 15a, 47/1-47/47). <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

De Pelekais, C. (2000). Métodos cuantitativos y cualitativos: diferencias y tendencias. *Telos*, 2 (2), 347-352. [file:///C:/Users/Propietario/Downloads/Dialnet-MetodosCuantitativosYCualitativos-6436313%20\(1\).pdf](file:///C:/Users/Propietario/Downloads/Dialnet-MetodosCuantitativosYCualitativos-6436313%20(1).pdf)

- Del Amo, M. (1964). *La hora del cuento*. [http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/la-hora-del-cuento--0/html/00052678-82b2-11df-acc7-002185ce6064\\_4.html#l\\_50](http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/la-hora-del-cuento--0/html/00052678-82b2-11df-acc7-002185ce6064_4.html#l_50)
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta Gazte literatura. Kontzeptuaren definizio baten bila*. Pamiela.
- Hezkuntza saila. (2018). Euskadiko irakurketa plana. [https://bideoak2.euskadi.eus/2018/01/31/plan\\_lector/Euskadiko\\_Irakurketa\\_Plana.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2018/01/31/plan_lector/Euskadiko_Irakurketa_Plana.pdf)
- Hodgson & Burque. (d.g.). *La filmoterapia, 15 beneficios del cine en terapia*. <https://jaimeburque.com/blog/la-guia/filmoterapia/beneficios/>
- Matías, C. (2009). *Tema 53: El cuento: Su valor educativo en los programas de intervención infantil. Tratamiento de un cuento: Técnicas de narración. Géneros de cuento. Criterios de selección de cuentos. El cuento como recurso globalizador. El rincón de los cuentos*. <https://www.preparadores.eu/temamuestra/Secundaria/ISC.pdf>
- Máxima, J. (2020). Buen profesor. *Características*. <https://www.caracteristicas.co/buen-profesor/#:~:text=Actitud%20positiva,alumnos%20entusiasmados%20con%20el%20aprendizaje>.
- Munita, F. (2018). "Para mí todos eran cuentos": incidencia de la formación docente en las creencias y saberes sobre literatura infantil y juvenil. *Catalejos. Revista sobre lectura, formación de lectores y literatura para niños*, 3 (6), 102-125. <http://fh.mdp.edu.ar/revistas/index.php/catalejos/article/view/2507/2773>
- Morar, I.C. (2017). *Rescatar a Carmen Kurtz para la educación literaria de Primaria*. (Grado Amaierako Lana). Universidad Zaragoza, Facultad de Educación, Espainia. <https://zagan.unizar.es/record/62785/files/TAZ-TFG-2017-1311.pdf>
- Morón, M.C. (2010). Los beneficios de la literatura infantil. *Temas para la Educación*, (8), 1-6. <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd7247.pdf>
- Neira-Piñeiro, M.R. eta Martín-Macho, A. (2020). Los futuros maestros de infantil ante la educación literaria: análisis de sus creencias sobre la literatura infantil. *Revista de currículum y formación del profesorado*, 24 (2), 224-250. <https://revistaseug.ugr.es/index.php/profesorado/article/view/14076/pdf>

- Orozco, M.B., Alonso, A. eta Ferrer, Y. (2010). Los conceptos de literatura infantil y juvenil, su periodización y canon como problemas de la literatura colombiana. *Estudios de Literatura Colombiana*, (27), 158-177. <file:///C:/Users/usuario/AppData/Local/Temp/Dialnet-LosConceptosDeLiteraturaInfantilYJuvenilSuPeriodiz-3885899.pdf>
- Pintado, E. (2015ko urtarrilaren 15a). *Leer a los niños en voz alta: todo son ventajas* [Mezua blog batean]. <http://www.auladeelena.com/2015/01/leer-ninos-voz-alta-ventajas.html#:~:text=Contribuye%20al%20desarrollo%20de%20su,de%20manera%20natural%20y%20relajada.>
- Piñero, A.R. (2012). *Creencias del profesorado sobre Literatura infantil: Estudio Exploratorio*. (Master Amaierako Lana). Universidad de Almería, Espainia. [http://repositorio.ual.es/bitstream/handle/10835/1941/Trabajo\\_7049\\_56.pdf?sequence=1&isAllowed=y](http://repositorio.ual.es/bitstream/handle/10835/1941/Trabajo_7049_56.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Porras, J. (2011). *La literatura infantil, un mundo por descubrir*. [https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=uV6DMvUBgT4C&oi=fnd&pg=PA9&dq=actividades+para+trabajar+la+literatura+infantil&ots=zeTrM0XP3V&sig=rKE7vSA0kK8kLlVl7v\\_7K3h24hY#v=onepage&q&f=false](https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=uV6DMvUBgT4C&oi=fnd&pg=PA9&dq=actividades+para+trabajar+la+literatura+infantil&ots=zeTrM0XP3V&sig=rKE7vSA0kK8kLlVl7v_7K3h24hY#v=onepage&q&f=false)
- Sánchez, C. (2018). Historia de la literatura infantil y juvenil: Europa y España. In Jiménez-Pérez, E. eta Fabregat, S. (Ed.), *La literatura infantil y juvenil: investigaciones* (11-167. or.). Barcelona: Octaedro.
- Segarra, L. (2015). *El uso del cine en el aula como recurso para facilitar el aprendizaje de la lengua inglesa en Educación Secundaria Obligatoria*. (Master amaierako lana). Logroño: UNIR, Espainia. [https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/3145/Lucia\\_Segarra\\_Banegas.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/3145/Lucia_Segarra_Banegas.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Tapia, P. (2016ko apirilaren 1a). *La importancia de la literatura infantil* [Mezua blog batean]. <https://lavenanaciudadana.cl/la-importancia-de-la-literatura-infantil/>
- Tejerina, I. (1997). *Literatura infantil y formación de un nuevo maestro*. [http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/literatura-infantil-y-formacin-de-un-nuevo-maestro-0/html/003f3304-82b2-11df-acc7-002185ce6064\\_2.html](http://www.cervantesvirtual.com/obra-visor/literatura-infantil-y-formacin-de-un-nuevo-maestro-0/html/003f3304-82b2-11df-acc7-002185ce6064_2.html)

Universia. (2016ko otsailaren 16a). *6 beneficios de mirar películas en clase* [Mezua blog batean]. <https://www.universia.net/ec/actualidad/orientacion-academica/6-beneficios-mirar-peliculas-clase-1136388.html>

## 9. ERANSKINAK

- Eranskin 1

- Inkestaren ereduak: <https://forms.gle/Pzun5RjSw9bZqipw5>